



66 Zka. ABENDUA 2016 DICIEMBRE Nº 66

Kide agurgarri horiek

Esparru guztietako gizarte hezitzailearen lanbide figura Elkargoren eginkizunen bitartez ezagutarazten ahalegintzen gara; gizarte hezitzaileak aritzen diren alorretan eta beren jardueren gizarte balioa jakitera emanaz.

Gure lanbideak 21 urte lanean darrai eta, lanbidea aurkezteko helburu bera izanik, gure Elkargoa orain dela 11 urte sortu zen. Aldi honetan jarduteko era, aldaketetara egokituz, mudatu bada ere gure jomuga ez dugu inoiz galdu. Elkargokideok eta gure lanbidea osatzen duen orok partekatutako helmuga, hain zuzen ere.

Gaur egun ere, ezagunak ez garen alorretan, nahiz hezitzaile figura oinarrikoa eta lehentasuna izan, gure tokia aldarrikatzeko beharra nabaritzen dugu. Horregatik egunero lanean ari gara eta horrela egunero indar sendoagoz jarraituko dugu.

Elkargoko Batzordea

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



Azaroaren 7an Cantabriako Legebiltzarrak [Ley de creación del Colegio de Educadoras y Educadores Sociales de Cantabria](#) onartu zuen eta 2016ko BOC-n argitaratu zen.

[APEESCAN](#) Gizarte Hezitzaileen Cantabriako Lanbide Elkarteak administrazioari [Cantabriako Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkargoa](#) sortzeko eskaria egin zion. Erakunde honek Erkidegoan urtetan lanbidearen sustapena eta gizarte hezitzaileak batzeko hainbat ekimen bultzatu du.

Elkargoa sortzeko legean gaitze prozedura, 4. xedapen iragankorretan azaltzen den legez, gizarte hezkuntza esparruan propioak diren funtzio eta eginkizunetan luze bete dituzten profesionalentzat zuzenduta dago.

APEESCANek Kudeatze Batzordearen bitartez Elkargoaren Batzorde Eratzailearen deialdia eta alde zuzeneko behar diren beste eginbeharrak arduratuko da.

GHEE-CESPVREN BERRIAK**GHEE-CEESPVko Deonotologi Batzordea.**

Urriaren 22an larunbatan "Gizarte Hezkuntza lanbidearekiko behaketa kritikoa. Iraganaldia, orainaldia eta etorkizunari begirada" izenburuko barneko mintegia burutu zen. Azaroan 15ean batzordeak ohiko bilera egin zuen.

Berrikuntza eta Ekintza Gizahezitzailea II. Jardunaldia.

Azaroaren 16an UPV-EHUko Gizarte Hezkuntza tituluko Kontseilu/Behatokia antolatutako jardunaldia egin zen. Elkargoak erakundeko partaidea da. Gizarte hezkuntzan abian dauden proiektu eta ikerketa ekintzaile eta arrakastatsuak ezagutzera ematea helburu zuen.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala.

Azaroaren 16an Vitoria-Gasteizen Gizarte Zerbitzuko Euskal Kontseiluko den Batzorde honek egidako bilerera gure Elkargoko kide bat bertaratu zen. Besteak beste BALORA tresna eguneratua onartzeko Dekretu-proiektuaren aurkezpena, analisia eta txostena egin ziren.

Elkarrizketa gizarte hezkuntza esku-hartze tresna tailerra.

Azaroaren 22an IRSE Euskadiko Bilboko EISE batean lan egiten duten gizarte hezitzaileek gure Elkargorako tailerra egin zuten. Ekintza dinamikoa eta praktikoa izan zen, bertan gizarte hezkuntza elkarrizketa osatzen duten elementuak analisatu ziren, zehazki, "oztopo mota"-ri aurre egiteko erabili ahal diren estrategiak. 17 gizarte hezitzaile parte hartu zuten.

FHZF UPV/EHU Donostia-San Sebastián.

Azaroaren 22an gure Elkargoa eta Donostiako EHUko Fakultatearen arteko lakidetza ituneko esparruan Gipuzkoako Elkargoko Delegaritzako kideak Xabier Etxague FHZFko Dekanoa eta Eli Arrieta Dekanordearekin batzartu ziren. Egindako ekintzen jarraipen eta balorapena garatu ziren, informazioa trukatu eta 2017an egiteko jardun batzuk antolatu ere bai. Datorren urtean Dekantora hauteskundeak izango dira eta Elkargoarekin eginten den lana jarraitzeko talde berriarekin euskaldatze-jarduera egingo da.

Bilboko Udalako GZUKko Etxerikgabeko pertsonetikiko lan batzordea.

Azaroaren 30ean Elkagoko Gizarte Zerbitzuko Udal Kontzeiluko batzorde honetan etxegabeko pertsonekin egiteko jarduraren oinarritzko informazioa eman zuten eta ekarpenak bidaltzeko eskatu zuten etxegabeko pertsonekin urrengo urteetarako Udal Estrategiaren diseinua egiteko. Elkagokide bat batzarrean partu hartu zuen.

Bilboko Udalako GZUKko Ume eta familiekiko lan batzordea.

Abenduaren 1ean Elkagoko Gizarte Zerbitzuko Udal Kontzeiluko batzorde honetan 2017ko Gizarte Ekintza Saileko urrekontua, Sailako 2016ko jardueraren txostena eta Umeekin Uri Adeitsuak programa aurkeztu ziren.

Sindikatu eta Gizarte Lagintza Elkargoarekin bilera

Abenduaren 12an Gizarte Langintza eta Gizarte Hezitzaile Elkargoak ESK, LAB eta CC.OO. sindikatuekin Prestazio eta Zerbitzu Dekretoaren ezarpenaren eraginei buruz hitz egiteko bildu ginen. Erakunde bakoitzak bere jarrera duela, gizarte zerbitzuetan arreta defendatzeko herritar guztien eskubide bezala elkarrekin aritzeko beharrean bat etorri ginen.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**LANBIDEA BAI, BOLUNTARIOTZA ERE BAI**

“Izan ere, bere lanbidea modu egokian egikaritu nahi duen horrek, ez du inoiz egiten, ez egiteko agintzen, beretzat onuragarriena izan daitekeena, bere ekintzaren xede denarentzat onuragarriena dena baizik”. Aipamen hori Platonen Errepublikan aurki dezakegu Sokratesen ahotan jarria, eta gaur, abenduak 5, boluntariotzaren nazioarteko egunean, irakurtzean, edozein ekintza boluntariok eta lanbidearen egikaritze orok izan beharko lukeen helburua deskribatzen duela pentsatu dut. Biak definitu beharko genituzke gure arretaren xede diren pertsona edo taldeetan oinarri hartuta. Profesional edo boluntario izan, manamendu etiko bat da horien onura bilatzea norberarenaren gainetik.

Boluntariotzaren fenomenoak nahiz gure lanbideak oraindik amaitu ez den bilakaera historiko luze batean du jatorria. Boluntariotzaren eta arlo profesionalaren arteko harremana bera, eta horien eta herritarren artekoa ere bai, etengabe birdefinitzen ari da. Mikro, meso eta makro inguruneak ere aldatzen ari direlako, besteak beste.

Boluntariotza estuki lotuta dago profesionalen jarduerekin partekatutako inguruneetan; ez bakarrik gizarte hezkuntza arloan, beste askotan ere bai, hala nola osasunaren edo ingurumena babesteko arloan. Boluntarioak eta profesionalak gai izan dira, osagarriak baina ondo bereziak izan diren rola beteta, sinergiak sortzeko.

Gure lanbidea nondik datorren jakiteko bilaketa bat egiten badugu ez zaigu zaila izango boluntariotza ikusteko gure lanbidearen zalantzarik gabeko arbaso moduan. Hortik jaso ditugu identitate ezaugarri batzuk: beharizan pertsonalak, gizartekoak eta giza taldeetakoak antzemateko gaitasuna, eta horiek aldatzeko esku-hartzeko nahia. Seme-alabak euren gurasoen klon bat ez diren bezala, gure lanbidea bere izaera propioa hedatzen joan da, eta egunean-egunean gaitasun tekniko eta etikoa handituz joan da; horri esker, beste lanbide batzuekin batera maila bereko elkarrizketa eta lankidetzan sartu da. Eta, era berean, boluntariotza arloarekin ere elkarrizketan sartu da, profesionalaren roletik berezita egon arren gizarte eraldaketarako beharrezko konplizea den aldetik.

Ez zen egun batetik bestera izan, apurka-apurka sortu zen gure lanbidea, aurrez aurre ziztuzten egoera pertsonal eta komunitarioei erantzun egonkor, berezitu eta eragingarriagoak eman nahi izatera ausartu ziren boluntario batzuen artetik. Bihotz zabal batez eta altruismo dosi handiez hornituta, boluntario haiek laguntzen zituzten pertsonen bizitza gizarte hezkuntzaren moduko lanbide bat egongo balitz nola aldatuko litzatekeen pentsatzen hasi ziren. Eta hemen gaude!

Diskurtso gaizki-esaleak alde batera uztea beharrezkoa da; alferrik da besteen akatsak oinarri hartuta birdefinitzen hastea. Gainera, hitzaldi idilikoei uko egitea ere beharrezkoa da, ontasunak soilik boluntariotzan edo soilik lanbidean ikusten baitituzte. Badakigu jende ona, erdipurdikoa eta txarra alde guztietan dagoela. Denak ez du balio boluntariotza arloan, ez eta arlo profesionalean ere.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

Azken urteotako boluntariotza mugimenduak ahalegin handia egin du gero eta konplexuagoak diren gizarte eta erakundeetan beharrezkoa den boluntariotza ereduari buruzko hausnarketa egin. Lorpen handiak egon dira, esaterako, boluntarioen eskubide eta betebeharren formulazioa, boluntariotzaren kode etikoa edo hainbat lege, zeintzuek, neurri handi edo txikiagoan asmatuta, erkidego maila eta estatu mailan boluntariotzaren kultura gorde eta sustatzen saiatu diren. Prozesu horren guztiaren fruitua da boluntariotzak duen interesa konprometitutako arloetan prestakuntza jasotzeko. Gaur egun, boluntario asko topatzen ditugu laguntzea garrantzitsua dela baina edozein modutan ezin dela egin pentsatzen dutenak. Gaur egun, boluntario askok antzinako estilo paternalista gainditu dute (estilo horretakoak izaten dira, batzuetan, gure lankide batzuk ere) eta laguntzen dituzten pertsonen autonomia sustatzen ahalegintzen dira.

Profesionalek ere aurrera egin dugu boluntariotzarekiko, berau indartuz, haien lana erraztuz, boluntarioak gure erakundeetan sartzeko prozesuetan lagunduz eta abar. Lan hori seriooki hartuz gero boluntariotza esku-lan merkea bihur dadin ekidingo dugu; izan ere, horrek ez lieke atarramendu onik ekarriko ez boluntarioei ez profesionaleri, eta are gutxiago gizarte ekintzaren xede diren pertsona edota taldeei.

Gizarte hezkuntzako profesionalen aburuz, herritar batzuen espresio bat da boluntariotza, ez bakarra, inguruan duten errealitatearen kargu egin nahi duten herritar batzuenak. Denok batera mundu hobea lortzeko lanean jarraitu nahi dugu. Zorionak eta eskerrak asko boluntario guztiei!

Roberto Vidal.
Gizarte hezitzailea eta boluntarioa.

INTERESGARRIKOAK



Los Estados de bienestar en la encrucijada: políticas sociales en perspectiva comparada. Del Pino, E., (eds.), Rubio, M.J. Madrid, Editorial Tecnos, 2013, 372 p.

La crisis del Estado de bienestar comenzó a vislumbrarse hacia 1970, y cuarenta años después, se constata que, efectivamente,

ha experimentado profundas transformaciones, en una adaptación continua a las necesidades sociales y los intereses políticos de cada momento y lugar. Esta obra persigue describir, mediante el análisis comparado, los cambios producidos en los Estados de bienestar en las últimas décadas.



¿La calle es mía? Poder, miedo y estrategias de empoderamiento de mujeres jóvenes en un espacio público hostil. Rodó-de-Zárate, M., Estivill i Castany, J. Vitoria-Gasteiz, Emakunde, 2016, 126 p.

Este documento es la memoria del proyecto ¿La calle es mía? Poder, miedo y estrategias de empoderamiento de mujeres jóvenes en un espacio público hostil. Esta investigación se

desarrolló durante los últimos meses de 2015 y la primera mitad de 2016. El objetivo de este proyecto es ver cómo esta intersección entre la edad y el género provoca una serie de prácticas y de comportamientos determinados que repercuten en la manera cómo la juventud vive las ciudades y sus espacios.



Necesita mejorar. Por un sistema educativo que no deje a nadie atrás. Anexo Euskadi = Hobetu egin behar da. Inor atzean uzten ez duen hezkuntza-sistema baten alde. Eranskina Euskadi.

Madrid, Save the Children, 2016, 23 p.



La educación social como acción transformadora. Reflexiones y experiencias desde distintos ámbitos de intervención profesional. Sánchez J. y Ramos F.J. Ed U Castilla-La Mancha (Coord.) 2015

Los Educadores y Educadoras Sociales trabajamos junto con otros perfiles profesionales y com-

partimos la misión social de crear las mejores condiciones para que las personas logren su máximo desarrollo social en bienestar y calidad de vida. Este trabajo incorpora funciones y tareas profesionales vinculadas con la gestión, la coordinación, la evaluación, la investigación, la formación, y de forma muy especial, la intervención desde distintos ámbitos profesionales.



Necesidades socioeducativas de la infancia en Bilbao: una mirada transversal desde el territorio.

Santibañez R., Laespada T. Pedagogía Social Revista Interuniversitaria nº28 Julio-Diciembre 2016, pg25-40

Evaluación participativa y empoderamiento. Xavier Úcar. Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria, 2014, 24, pp.13-19

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.